

BATERA. KULTUR PROIEKTUAK ELKARREKIN 2024-2025 OINARRIAK

XEDEA:

Batera deialdiak ekimen kultural jakin baten garapenari diruz laguntzeko helburua du, internetek eskaintzen duen crowdfundingaren aukera baliatuz: **liburu bat argitaratu, jaialdi bat antolatu, APP bat sortu, podcast bat martxan jarri, erakusketa bat egin, bideo-jolas bat garatu, euskarazko lelodun kamisetak egin, sare sozialetarako edukia sortu...**

Deialdira aurkeztuko diren proposamenen artean 2. fasera pasatuko diren 3 proiektuei [Itsulapikoa.eus](https://itsulapikoa.eus) plataformaren bidez, crowdfunding kanpaina bat garatzen eta komunikatzen lagunduko zaie, Euskal Herriko gazteek garatu nahi dituzten euskarazko kultur ekimen berritzaileen gauzatzea sustatu nahian.

Parte-hartzaile bakoitzak [Itsulapikoa.eus](https://itsulapikoa.eus) crowdfunding plataforman 1000€ lortzen dituenan babesleleek proiektu hori beste **2000€rekin lagunduko dute:**

- Euskal Herriko proiektu onenari **Laboral Kutxak** emango dio dirulaguntza.
- Arabako proiektu onenak **Vital Fundazioaren** babesla jasoko du.
- Gasteizko proiektu onena **Izaskun Arrue Kulturguneak** eta **Gauekoak programak** lagunduko dute diruz.

NORI ZUZENDUTA DAGO?

Batera deialdira **16-30 urte bitarteko Euskal Herriko pertsona fisikoak** edo pertsona fisikoen taldeak aurkez daitezke, euskaraz garatzeko asmoz pentsatutako edozein kultur proiektuekin. Gutxienez, Gasteizko proiektu bat hautatuko da eta Gauekoak programak eta Izaskun Arrue Kulturguneak lagunduko dute proiektu hori.

PROIEKTU MOTAK

Gaiak:

Gazte euskaldunek euskaraz garatutako kultura-proiektuak eta kulturaren arloan gauzatzeko edozein ideia kontuan hartuko da.

Bereziki, euskararen erabileran eragingo duten, gazte euskaldunen sustatze-ahalmenari eta euskararekiko atxikimenduari eragingo dioten ekimen berritzaileak baloratuko dira.

Formatuak:

Kulturaren alorreko eta euskaraz garatutako edozein ekimen, produktu, ekitaldi, programa, kultur ekoizpen, zerbitzu, teknologiaren garapen... aurkeztu ahal izango da deialdi honetara.

1. FASEA. PROPOSAMENAK AURKEZTU

Azaroak
27ra
arte

Deialdian parte hartzeko proposamenak aurkeztu.

Abenduak
13

Epaimahaiak hautatu dituen 3 proposamenak argitaratuko dira.

2. FASEA. CROWDFUNDING KANPAINAK EZAGUTZERA EMAN

Crowdfunding kanpaina prestatu. Gidaritza eta aholkularitza izango dute.

Urtarrilak
15

Crowdfunding kanpainak zabaldu.

Crowdfunding kanpaina hedatu eta zabaldu.

Otsailak
11


Crowdfunding kanpainak itxi.

3. FASEA. KULTURA-PROIEKTUAK GARATU

Kultura-proiektuak garatu eta ekarpenak egin dituztenei opariak banatu.

Maiatzak
15

Kultura-proiektuen aurkezpen irekia Izaskun Arrue Kulturgunean.



1. FASEA. PROPOSAMENAK AURKEZTU

1.1. EPEAK ETA EGUTEGIAK:

2024ko irailaren 27tik azaroaren 27ra arte (barne) egongo da zabalik proposamenak jasotzeko epea.

1.2. NOLA AURKEZTU?

Proposamenak aurkezteko nahikoa izango da landu nahi den proiektuaren laburpena kultura@lazarraga.eus helbidera bidaltzearekin. Hautatutako 3 proposamen irabazleak izango dira crowdfundinga garatuko dutenak.

- **Izenburua**
- **Deskribapen laburra eta irudi edo zirriborroak** (1500 hitz eta 3 irudi gehienez)
- **Nori dago zuzenduta** zure kultura-proiektua? (50 hitz)
- **Metodologia eta kronograma** (500 hitz) Proiektua nola egingo duzun, zer fasetan dagoen, zer baliabide eta laguntza behar dituzun, eta zer lan mota egingo dituzun proiektua aurrera ateratzeko.
- **Aurretiazko esperientzia** (gehienez 3 proiektu esanguratsuenak aipatu, eta argazkiak, bideoak edo bestelako euskarriak erantsi).
- **Crowdfunding kanpaina zehaztu:**
 - Gutxieneko eta gehieneko helburu ekonomikoak.
 - Kultur-proiektua garatzeko beharrezko aurrekontua.

- **Crowfundingean ekarpen bat egin duten guztiei egingo zaizkien opariak zehaztu.** Adibide bezala, aurretik egindako kanpainetako opariak:


- <https://www.itsulapikoa.eus/eu/proiektuak/beita-websaila>
- <https://www.itsulapikoa.eus/es/proyectos/euskaldun-berriak>

Parte-hartzaileek gehienez ere bi proiektu aurkeztu ahal izango dituzte, eta izatekotan, bakarra hautatuko da laguntza jaso ahal izateko.

1.3. PROIEKTUEN BALORAZIOA

Behin proposamenak jasotzeko epea amaitzen denean, jasotako proposamenetatik hiru hautatuko dira. Berriaz eratu da epaimahai bat ondorio honetarako, eta Izaskun Arrue Kulturguneko Udaleko arduraduna, Gauekoak programako kide bat eta Izaskun Arrue Kulturguneko kultur teknikari bat izango dira epaimahaiko kideak. Hurrengo irizpide hauen arabera ebaluatuko dituzte jasotako proposamenak:

- **Proposamenaren kalitatea eta berrikuntza-maila** egungo ezagutzaren, produktuen eta zerbitzuen eskaintzari dagokionez, nahiz komunitatearentzat desiragarriak diren eta euskararen egoera eraldatzeko eragin positiboak sortzen dituzten balioak sustatzeari dagokionez. (20 PUNTU)



- **Proiektua Gasteizen edo Euskal Herrian garatzea:** Proiektuaren bidez kultura euskaldunaren esparrua aberastea, bertan elkarri lotzea, eta kultur ekosistema euskalduneari sar daitezkeen kalitatezko eta sormenezko proiektu eta ekimen berrien agerpena sustatzea. (20 PUNTU)
- **Zehazteko fasean egotea:** Aurrekontu koherentea izateaz gain, ekimena modu eraginkorrean garatzeko plan bat izatea. (10 PUNTU)
- Proiektua **zer kolektibo eta interes-taldeari zuzenduta** dagoen ondo identifikatuta egotea. (20 PUNTU)
- **Partaidetza-kudeaketa gardena**, lankidetzaz jardunbideak eta eragileen arteko lankidetzaz sustatzea. (10 PUNTU)
- Interes-taldeentzat **erakargarriak diren banakako opariak** proposatzea. (20 PUNTU)

2024ko abenduan hautatutako proiektuen sustatzaileei individualki egingo zaie jakinarazpena posta elektronikoko bidez.

2. FASEA. CROWDFUNDING KANPAINAK

2.1. CROWDFUNDING KANPAINAK EZAGUTZERA EMATEA

Izaskun Arrue Kulturguneko eta Gauekoak programako teknikariek emango dituzte crowdfundinga osatzeko beharrezko irizpideak eta aholkularitza.

Behin crowdfunding kanpaina zabaltzen denean, **28 eguneko crowdfunding kanpainari emango zaio hasiera** urtarrilaren 15etik otsailaren 11ra. Antolatzaileek lagunduko dute crowdfunding kanpaina komunikatiboki zabaltzen, parte-hartzaileek gutxieneko helburua lortu dezaten.

2.2. PARTAIDEEN ARTEKO ELKARLANA


Batera deialdian parte hartuko dutenen artean elkarlaguntza sustatu eta islatuko duen sare sozial amankomun bat sortu eta elikatuko dute.

Hala, proiektu bakoitzaren prozesuaren eta emaitzaren testigu izango da. Crowdfunding kanpainaren hedapenaren jarraipena egingo du, eta deialdiaren inguruan egiten diren ekitaldi publikoen berri emango du.

2.3. ITSULAPIKOA.EUS

Crowdfunding kanpaina guztia [Itsulapikoa.eus](https://www.itsulapikoa.eus) plataformaren bitartez egingo da:

- Crowdfundingari eta Itsulapikoa.eus plataformari buruzko informazioa: <https://www.itsulapikoa.eus/faq>
- Itsulapikoa plataformari buruzko bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=dHp-JS74aSY>



2.4. CROWDFUNDING KANPAINAREN HELBURU EKONOMIKOAK

Batera egitasmoaren crowdfundingak horrela funtzionatuko du finantzaketa kanpainan zehar:

- Antolatzaileek eta babesleek jarriko dute Batera egitasmoaren crowdfundingaren parte bat.
- Parte-hartzaileen baldintza Itsulapikoan gutxienez 1000€ lortzea izango da. Helburu hori lortzerakoan, babesleek proiektu bakoitza 2000€ rekin lagunduko dute.
- Ondorioz, proiektu bakoitzak gutxienez 3000€ izango ditu eta zenbateko hau norbanakoen artean egindako diru-bilketari gehituko zaio. 10.000€ izan da deialdi honetan lortu den zenbatekorik handiena.
- Crowdfundingaren 28 egunak igaro eta gero, proiektu batek gutxienerako finantzaketa-helburua lortzen ez badu, ezingo du laguntzaileen finantzaketa jaso.
- Crowdfundingaren ordainketa jasotzean herritarren opariak banatu beharko dira.

3. FASEA. KULTURA-PROIEKTUAK GARATU

Crowfundinga bultzatzeko kanpaina amaitu eta hurrengo bi hilabeteetan, parte-hartzaileek haien helburu eta konpromisoen jarraipena egingo dute: lortutako dirua jaso, proposatutako kultura-proiektua garatu, eta ekarpenak egin dituzten guztiei sariak banatuko dizkiete.

3.1. LORTUTAKO DIRUA JASO

Ordainketa diru-bilketaren kanpaina bukatu ondoren egingo da.

Itsulapikoa Elkarteak pribatuen aldetik bildutako diru-kopuruaren %5,5 + BEZeko komisioa kobratuko die arrakastaz finantzatutako proiektuei, plataformako zerbitzuak, euskarri teknikoa, ordainketa- eta kobratze-kudeaketa eta abarren zerbitzuak erabiltzeagatik.

Proiektuaren egileak, hau da, dirua jasotzen duenak, tokian tokiko ogasunak ezartzen dituen irizpide eta arauak bete beharko ditu.

Proiektua gutxienerako aurrekontura iristen ez bada, ez da komisiorik kobratuko, eta kanpainaren garapenak ez du kosturik izango sustatzaileentzat.

Aurreko edozein baldintza beteko ez balitz, Itsulapikoa Elkarteak bere esku dauden neurriak erabiliko ditu, juridikoak barne, sor daitekeen egoerari irtenbide bat emateko.

3.2. KULTURA-PROIEKTUA GARATU

Hautatutako 3 proiektuetatik, crowdfunding kanpaina arrakastaz gainditu dutenek hiru hilabete izango dituzte beren proiektua garatzeko.

Nolanahi ere, 2025eko maiatzaren 15ean, Batera deialditik ateratako kultur proiektuen aurkezpen publikoa egingo da Izaskun Arrue Kulturgunean, eta parte-hartzaileek beren lanak bertan aurkezteko konpromisoa hartuko dute.

3.3. BETEBEHARRAK

Egitasmoa aurrera eramaten lagundu duten parte-hartzaile guztiek jasotako ekarpenengatik opariak emateko konpromisoa hartuko dute.

Batera egitasmorako deialdian parte hartzeko, Itsulapikoa.eus plataformako baldintza orokorrak onartu behar dira, eta oinarri hauek osorik eta baldintzarik gabe onartu behar dituzte proiektu bakoitza sustatzen dutenek.

Horrez gain, ziurtzat jotzen da aurkeztutako proiektuaren egiletza eta titulartasuna bermatuta daudela, eta ez direla urratzen beste inoren obraren jabetza intelektualaren eskubideak.

Proiektuak Itsulapikoa plataforman sartzeak ez du inolaz ere esan nahi Itsulapikoa Elkarteari jabetza intelektual edo industrialaren eskubiderik uzten zaionik.

INFORMAZIOA ETA HARREMANA

Batera egitasmoaren gaineko beste argitasun eta kontu praktiko batzuk lortzeko, gurekin harremanetan jar zaitezke helbide honetan: kultura@lazarraga.eus

